


Emakumeak baztertzearen aurka egiteko eta sexuen arteko berdintasuna aldezteko hezkuntza neurriak dakartzate lege horiek guztiek. Neurriok ikastetxeetan gauza daitezen, ardura berriak hartu behar ditugu.

Jadanik hainbat irakaslek, hezkuntza komunitatearen lankidetzarekin, eskola eraldatzen ari dira benetan.

Parte har ezazu sexuen arteko berdintasunerako neurri horiek eta beste batzuk aurrera eramaten.



www.mtas.es/mujer



EMAKUME SINDICATUAK
berdintasunean hezten

lege berriak,
eskari berriak,
emakumeak eta gizonak
berdintasunean hezteko



EMAKUME SINDICATUAK
berdintasunean hezten

Egun, legeetan aldaketa interesgarriak egiten ari dira, sexuen arteko aukera eta eskubide berdintasunaren aldeko hezkuntza bultzatzearen. Antolakunde feministek, irakaskuntzako sindikatuak eta, oro har, gizartearen zati handi batek behin eta berriz plazaratutako aldarrikapenei erantzuten diete aldaketa horiek. Izan ere, gizarteko taldeok arbuia egiten dute emakumeek gizartean, ekonomian eta politikan baztertea.

Lege horiek guztiak hezkuntza arlora ekarri behar dira.

- 1** ● **GENERO INDARKERIAREN KONTRAKO BABES INTEGRALEKO NEURRIEN LEGE ORGANIKOA:** hezkuntzaren arloan hartu beharreko neurriak dakartza. Lege horrekin, berriz hartzen da balioetako hezkuntzaren jardunbidea, eta, ildo horretan, emakumeak baztertearen eta matxismoaren kontrako borroka. Balio horiekin batera, legeak sustatzen du gatazkak ebazteko bakebideak erabiltzen ikastea, gatazkak ebazteko indarkeriazko bideen aurrean kritiko izatea, eta afektuak eta emozioak heztea. Alde horiek garatzea funtsezkotzat hartzen du, erasorik gabeko bizikidetzarako. Unibertsitateek arlo akademiko guztietan sartu eta sustatuko dute gai horietan heztea.
- 2** ● **EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BENETAKO BERDINTASUNERAKO LEGE ORGANIKOA:** berritasun gisa, ikastetxeetako kontrol eta gobernu organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzen du. Eta lege horren asmoa da bereizkeriazko jokabideak prebenitzea; horretarako, hezkuntzaren arloko orientazio irizpideak ezartzen dizkie politika publikoei.
- 3** ● **HEZKUNTZAKO LEGE ORGANIKOA:** Genero Indarkeriaren kontrako Legean jasotako hezkuntza neurriak dakartza. Era berean, hezkuntzaren eta hezkuntza afektiboaren printzipio eta xedeak sartzan ditu, bai eta hainbat balio (askatasuna, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna...) sustatzea ere. Hezkuntzako lege horretan xedatuta dago ikastetxeetan ikasleak onartzean ez dela sexuagatik bereizketarik egin behar, eta hezkuntzako etapa guztietan baterako hezkuntzaren printzipioa garatzen duten ikastetxeei eman behar zaiela arreta lehentasunez.
- 4** ● **SEXU BEREKO GIZABANAKOEN ARTEAN EZKONTZEKO ESKUBIDEAREN GAIAN KODE ZIBILA ALDATZEN DUEN LEGEA:** berdintasuneko eskubide demokratikoak zabaltzen eta onartzen ditu.
- 5** ● **AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEKO ETA MENDEKOTASUN EGOERAN DIREN GIZABANAKOAK ARTATZEKO LEGEA:** herritartasuneko gizarte eskubideak onartzenditu.

FE-CCOO, STES-I ETA FETE-UGT SINDIKATUOK, ESKATZEN JARRAITZEN DUGU:

- Baterako hezkuntza eskaintzen duen irakaskuntza mistoa kosta ahala kosta aldeztea. Hezkuntza horretan, neskek eta mutilak elkarrekin bizi dira egunez egun, eta partekatu egiten dituzte ikastetxeak, ikasgelak eta hezkuntza sisteman egiten diren jarduera guztiak, bereizkeriak gainditzeko eta berdintasuna sustatzeko xedearekin.
- Emakumeei eta gizonei gizarte balio onak helaraziko dizkien hezkuntza integralerako aukera garbia.
- Irakasleei hasierako eta etengabeko prestakuntza ematea, barnean sartuta sexuen berdintasuna, Emakumeen aurkako Indarkeria desagerrarazteko Legearen jarraibideei jarraituz.
- Ikastetxeetako ikasleek prestakuntza eta ordutegi egokiak izatea, sexuen arteko benetako berdintasuna gauzatzeko.

ORAIN, BEHARREZKOA DA HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOEK PLANAK EGITEA, HELBURU HAUEK IZANIK:

- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuneko hezkuntza zeharka **lantzea**, arlo guztietako curriculumean eta ikastetxeko hezkuntza proiektuan.
- Berdintasunerako hezkuntza, afektu eta sexu hezkuntza, eta gatazkak prebenitu eta bakebidez ebazteko heziketa **sartzea**, eskola curriculumean eta tutoretza ekintzako planetan.

- Emakumeak eta gizonak izendatuko dituen eta estereotipo sexisten erabilera desagerraraziko duen hizkuntza **sustatzea**, ikasmaterialetan eta ikastetxeetako bizikidetzan.
- Emakumeek zientziari, kulturari eta gizarte nahiz politika garapenari egindako ekarpena **integratzea**, curriculumean.
- Gizonen eta emakumeen artean berdintasuna izateko eta sexu orientazioen aniztasuna errespetatzeko hezkuntza neurriak hartuko dituen adituen batzordea **eratzea**, eskola kontseiluan.
- Emakumeari buruzko ikerketen unibertsitate sailak era daitezen **bultzatzea**, irakasle eskoletan eta irakasleei hasierako eta etengabeko prestakuntza ematen dieten fakultateetan.
- Irakasleak baterako hezkuntzaren arloan etengabe prestatzeko aholkularitza taldeak **eratzea**.
- Ikastetxeak baterako hezkuntza lantzeko eta emakumeen kontrako indarkeria eta homofobia prebenitzeko material eta baliabide didaktikoez **hornitzea**, eta eskola liburutegiak gai horietan eguneratzea.
- Hezkuntzako ikuskatzaileek, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzeko neurriak hartzen eta betetzen direla zainduko dela **bermatzea**. Horretarako, prestakuntza egokia jaso beharko dute.
- **Ezartzea** Estatuko Eskola Kontseiluak, hezkuntza sistemari buruz urtero egiten dituen txostenetan, datuak jaso ditzala eta baliozta dezala hezkuntza komunitateko bereizkeria eta sexismo egoerak zertan diren; eta jakinaraz eta baliozta dezala hezkuntza administrazioek abian jarritako neurrien emaitzak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeari eta indarkeria prebenitzeari dagokionez.